

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

IRURAIZ-GAUNAKO UDALA

Elkartek, kirol klubek edo pertsona fisikoek 2024an egiten dituzten kultura eta kirol ekimenak finantzatzeko deialdiaren oinarriak

Udalbatzak, 2024ko otsailaren 6an egindako bilkuran, elkartek, kirol klubek edo pertsona fisikoek 2024an egiten dituzten kultura eta kirol ekimenak finantzatzeko laguntzen oinarri arautzaileak onetsi zituen.

Bat etorri Dirulaguntzen azaroaren 27ko 38/2003 Lege Orokorraren 9.3 artikulua, Dirulaguntzak arautzen dituen udal ordenantzaren 4.4 artikulua eta Administrazio Prozedura Erkidaren urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45.1 artikulua xedatutakoarekin, argitaratu egiten dira oinarri horiek, guztiek jakin ditzaten.

1. oinarria. Deialdiaren xedea

Oinarri hauetan araututako dirulaguntzen helburua da, norgehiagoka prozedura bidez, udal jardueren osagarri diren udalerriko kultura eta kirol arloko programak eta jarduerak garatzen laguntzea, 2024. urtean.

Jarduerak finantzatzeko laguntzak dirulaguntzak izango dira, eta honako hauek aplikatuko zaizkie: azaroaren 17ko Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorra eta haren arautegia (887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa), Toki Korporazioen Zerbitzuen Arautegia, Plan Estrategikoa eta, azkenik, Dirulaguntzen Udal Ordenantza.

2. oinarria. Onuradunak

Honako hauek izan daitezke laguntza hauen onuradun:

1. Irabazteko xederik gabeko elkarteak eta kirol klubak, baldin eta Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legeak ezartzen duenaren arabera behar bezala erregistratuta badaude eta baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Iruraiz-Gaunako udalerrian dauden irabazteko xederik gabeko kirol elkarteak eta klubak. Euskadiko Elkarteen ekainaren 22ko 7/2007 Lege Orokorrean xedatutakoaren arabera egiaztatuko da izen ematea.

b) Irabazteko xederik gabeko kirol elkarte eta klubak, baldin eta, egoitza Iruraiz-Gaunako udalerrian eduki ez arren, bertan badihardute eta haietako bazkide edo partaideren bat udalerrikoa bada. Euskadiko Elkarteen ekainaren 22ko 7/2007 Lege Orokorrean xedatutakoaren arabera egiaztatu beharko da izen ematea eta udalerriko nortzuk diren bazkide adierazi.

2. Iruraiz-Gaunako udalerrian errolatutako pertsona fisikoak, baldin eta egiten dituzten eta dirulaguntzaren xede diren proiektu edo jarduerak udal jarduera osatzen badute eta udalerrirako interes publiko eta sozialekotzat hartzen badira.

3. oinarria. Diruz lagundu daitezkeen programak

Dirulaguntza jaso dezakete eskaera egiten den urtean Iruraiz-Gaunako udalerrian egin diren irabazteko asmorik gabeko jarduera programatuek. Halaber, diruz lagundu daitezke zuzenean udalerrian bertan egin ez arren, 2. oinarrian adierazitako onuradunek garatzen duten programaren zati diren jarduerak, arlo hauetakoak:

1. Kultura sustapena.

– Herritarren partaidetzako kultura jarduerak, herritarren artean kultura sortu, zabaldu edo sustatzera zuzenduak.

– Prestakuntza eta sorkuntza artistikoko jarduerak: aisialdiko eta denbora libreko tailerrak.

- Kultura zabalkundeko jarduerak: hitzaldiak, monografikoak, erakusketak...
 - Bisita kulturalak.
 - 2. Kirol sustapena.
 - Kirol jardueretarako laguntzak: kirol lehiaketa, ibilaldiak, txapelketak, baita aisialdiko kirolarekin lotutako edozein jarduerara ere.
 - 3. Materialak.
 - Saritarako gaiak erostea.
 - Jarduerak egiteko erabilitako materialak (margoak, papergintza, pintzelak, kartelak).
- Honako hauek ez dira diruz lagunduko:
- Sexua dela eta zuzenean zein zeharka inor diskriminatzen duten jarduerak.
 - Otorduen, elikagaien eta edariaren gastuak.
 - Herriko jaietarako laguntzen, hitzarmenen eta abarren bidez dirulaguntza jasotzen duten berariazko jarduerak.
 - Ondasun higigarriak edo higiezinak eta bulegoko material suntsikorrek erostea, diruz lagundutako jarduerara egiteko behar-beharrezkoa den materiala izan ezik, aldeztatik haren behararen balorazioa eginda.
 - Funtzionamenduak sortutako gastuak (higiezinaren alokairua, langileen nominak, erregaia...).
 - Jarduera egiteko funtsezkotzat jotzen ez diren gastuak.
 - Udalak eskaintzen dituen pareko proiektuak, udalaren esku hartzearen osagarri ez badira.

4. oinarria. Aurrekontuko zuzkidura

Dirulaguntzen zenbatekoa, 2.000,00 euro, aurrekontu partida honi egotziko zaio: kultura eta kirol jardueretarako 330.48110 partida.

Dirulaguntzak borondatezkoak izango dira eta indarreko urtean baino ez dira aplikatuko. Ezin izango da arrazoitzat eman aurrekoan jaso izana eta ezin izango da dirulaguntza handitzeko edo berrikusteko eskatu.

5. oinarria. Dirulaguntzak emateko irizpideak eta dirulaguntzen zenbatekoak

Dirulaguntzak emateko eta haien zenbatekoak zehazteko irizpide orokor hauek hartuko dira kontuan:

- a) Lehentasuna izango dute udalerrian bertan egiten diren jarduerak.
- b) Ekimenak zer-nolako ekarpena egiten dion kultura berreskuratzeari eta zabaltzeari eta euskararen normalizazioari.
- c) Zeharka berdintasunarekin eta kultura arteko elkarbizitzarekin lotutako alderdiak sartzen dituzten jarduerak.
- d) Dirulaguntzarik gabe gauzatzen zailak izango liratekeen jarduerak bultzatzea.
- e) Jardueraren interes orokorra.
- f) Aplikaziorako lurralde eremua: jardueran zenbat udalerrri sartuta dauden edo zenbat herri diren jardueraren onuradun.
- g) Iruraiz-Gaunan onuradun izango diren pertsonen eta jardueran parte hartuko duten kolektiboaren kopurua.

h) Programaren kostuaren eta erakunde eskatzaileak bere gain hartzen duen zatiaren arteko erlazioa.

i) Gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren alde egitea.

j) Genero ikuspegia modu positiboan garatzen eta bultzatzen duten programak.

1. Honako irizpide hauek erabiliko dira irabazteko xederik gabeko elkarte eta kirol klubentzako laguntzen zenbatekoa ezartzeko:

a. Egoitza udalerrian duten eta udalerrian bakarrik jarduten duten kirol elkarteek eta klubek egiten dituzten jardueretarako, diruz lagundu daitekeen kostuaren ehuneko 85 emango da gehienez (izan litezkeen diru sarrerak kenduta), aurkezten diren eskaeren arabera. Dirulaguntzaren zenbatekoa 500,00 euro izango da gehienez, aurkezten diren programen edo jardueren bolumena gorabehera, eta betiere udalerrriaren aurrekontu orokorrean dagoen aurrekontu partidaren esparruan.

b. Udalerritik kanpo egiten diren jarduerak, hala nola txangoek, irteerek eta abarrek, 200 euroko dirulaguntza jasoko dute gehienez. Dirulaguntza hori jasotzeko, gutxienez 250 euroko gastua justifikatu eta egiaztatu beharko da.

c. Egoitza udalerrian ez duten kirol elkarteek eta klubek egiten dituzten jardueretarako, diruz lagundu daitekeen kostuaren ehuneko 85 emango da gehienez, aurkezten diren eskaeren arabera. Dirulaguntzaren zenbatekoa 400,00 euro izango da gehienez, aurkezten diren programen edo jardueren bolumena gorabehera, eta betiere udalerrriaren aurrekontu orokorrean dagoen aurrekontu partidaren esparruan.

d. Sari gisa banatutako produktuen erosketak: kostuaren ehuneko 50 finantzatu da gehienez, eta, gehienez ere, 100,00 euro emango dira.

e. Jarduerak egiteko erabilitako materialak (margoak, papera, pintzelak, kartelak): kostuaren ehuneko 50 finantzatu da gehienez, eta, gehienez ere, 100,00 euro emango dira.

2. Iruraiz-Gaunako udalerrian erroldaturiko pertsonen, baldin eta nortasun juridikorik ez badute, irizpide berezi hauek aplikatuko zaizkie:

– 1 a), b), d) eta e) apartatuetako irizpide berak aplikatuko dira.

– Laguntza bakarra emango da, baldin eta pertsona fisikoaren talde batek baino gehiagok, bakoitzak bere aldetik, dirulaguntza eskaera bat baino gehiago egiten badute jarduera edo jarduera programa bererako.

Faktura bidez justifikatzen direnak bakarrik hartuko dira gastutzat.

Kasu guztietan, baldin eskaeren kopurua eta eskatutako dirulaguntzen zenbatekoa direla-eta dirulaguntzen gehieneko ehunekoak murriztu behar badira aurrekontuan ezarritako partidara doitzeko, murrizketa proportzioan ezarriko zaie jarduera guztiei.

6. oinarria. Eskaerak eta aurkeztu beharreko agiriak

Eskatzaileek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Eskaera bat (eredu ofizialaren arabera) programa edo jarduera bakoitzeko, elkartearen lehendakariak edo eskaeraren edo jardueraren arduradunak sinatuta.

b) Eskatutako laguntzen zerrendaren ziurtagiria, elkarteko idazkariak edo eskaeraren edo jardueraren arduradunak egina. Beste organismo edo erakunde batzuei dirulaguntzaren bat eskatzen bazaie programa bererako, horien zerrenda aurkeztu behar da (I. eranskina).

c) Zerga zorrik ez duela eta Gizarte Segurantzaren ordainketetan egunean dagoela adierazten duen ziurtagiria (I. eranskina).

d) Egoitza udalerrian ez duten elkarte edo klubak kasuan, Iruraiz-Gaunako udalerrian erroldatutako bazkideen justifikazioa aurkeztu beharko da.

e) Jardueren edo programaren proiektua (eskaeraren eranskinaren arabera); datu hauek zehaztu behar dira:

- Lortu nahi diren helburuak.
- Egingo diren jardueren deskribapena.
- Jarduerak non eta noiz egingo diren.
- Jarduera norentzat den eta onuradun kopurua.
- Dirulaguntzaren bidez egingo diren jardueren diru sarreraren eta gastuen aurrekontu xehatua.
- Jarduera zein hizkuntzatan egingo den.

f) Estatutuen fotokopia, eta elkartearen legearen erakundearen erregistroan izena emanda dagoela frogatzen duten agiriak (soilik dirulaguntzak lehen aldiz eskatzen dituzten elkarteek edo estatutuak aldatu dituztenek).

Eskaerak eskakizun guztiak betetzen ez baditu, interesdunari eskatuko zaio hamar egun balio-duneko epean zuzentzeko, bat etorri Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura 39/2015 Legearen 68.1 artikuluan xedatutakoarekin.

7. oinarria. Dokumentuak aurkeztea

Dokumentazioa Iruraiz-Gaunako dokumentuen sarrera erregistro orokorrean aurkeztu beharko da, edo Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 39/2015 Legearen 16. artikuluan adierazten diren edozein bide erabilita.

Eskaerak eta seigarren oinarrian zehazten diren agiriak 2024ko apirilaren 26rako aurkeztu behar dira.

Epea kanpo aurkeztutako eskaerak ez dira kontuan hartuko.

8. oinarria. Dirulaguntzen bateragarritasuna

Udalaren laguntzak bateragarriak dira eskatzaileek eskuratzen dituzten beste batzuekin. Dena dela, Udalaren dirulaguntzaren zenbatekoa, beste laguntza batzuekin batera zein bakarrik, ezin da izan talde onuradunak egingo diren jardueraren kostua baino handiagoa.

Onartutako dirulaguntza berriro aztertu ahal izango da, gastuaren finantzaketa zein den eta laguntzen edo beste diru sarrera batzuen ekarpen osagarriak zenbatekoak diren jakin ondoren. Horrelakoetan hau izango da dirulaguntzaren behin betiko zenbatekoa: diru sarreraren eta gastuen arteko azken likidazioaren ondoriozko defizita.

9. oinarria. Eskaerak aztertu eta ebatzea

Eskaerak aurkezteko epea amaitu eta gero aztertuko dira dirulaguntzak eta, hala badagokio, onartuko edo ukatuko.

Udalak, egoki deritzen kasuetan, aukeran izango du aurkeztutako agiriari buruzko datuak eta azalpenak eskatzea. Espedientea atzeratu, eta are artxibatu ere egin daiteke, datu edo azalpen horiek ez badira ematen Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen ezarritzen dituen epeetan.

Eskaera bakoitzaren inguruko izapide guztiak egin ondoren, teknikariak txostena egin eta alkate-lehendakariari bidaliko dio, ebazpena eman dezan. Alkate-lehendakariak dirulaguntza eman ala ukatu ebatziko du dagokion erabakiaren bidez, eta horren berri emango die eskatzaileei, idatzizko jakinarazpen bidez.

Eskaerak gehienez ere hiru hilabeteko epean ebatziko dira. Epe hori amaitu eta esanbidezko ebazpenik eman ez bada, eskaera ezetsi egin dela esan nahiko du. Ebazpenak administrazio bi-dea agortuko du eta ebazpenean bertan adieraziko da zer errekurtso jar daitezkeen haren aurka. Ebazpena Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 42. eta 43. artikuluetan ezarritakoaren arabera jakinaraziko da.

10. oinarria. Betebeharrak

- a) Diruz lagundutako jarduerak ematen diren urteko abenduaren 31 baino lehen egin beharko dira.
- b) Onuradunek, gastuak frogatzeaz gainera, jardueraren memoria xehatua eta gastuen eta diru sarreraren balantze ekonomikoa aurkeztu beharko dituzte.
- c) Ezin izango da emandako dirulaguntzaren xedea aldatu, udalak baimena eman ezean.
- d) Udalari xede berbererako eman eta ordaindu diren laguntzen berri eman behar zaio, kasuan kasuko laguntza itzul dadin.
- e) Jardueraren publizitatean hauxe agertu behar da idatzita: "Iruraiz-Gaunako Udalaren laguntzarekin / Con la colaboración del Ayuntamiento de Iruraiz-Gauna".
- f) Agiri guztietan, publizitatean, irudietan edo materialean komunikazio ez-sexista erabili behar da, emakumeak diskriminatzen dituen edozein irudi edo estereotipo sexista saihestu, eta berdintasun balioak sustatu.
- g) Onuradunek publizitatea eta komunikazioak Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan egin behar dituzte.
- h) Iruraiz-Gaunako Udalak Herri Kontuen Euskal Epaitegiak edo beste erakunde eskudunen batek eskatutako argibide oro eman behar du onuradunak.
- i) Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak eta dirulaguntzen udal ordenantzak ezarritako betebeharrak.

Dirulaguntzaren eskaera aurkezte hutsak berekin dakar oinarri hauek ezagutzea eta onartzea.

11. oinarria. Hizkuntza irizpideak

Iruraiz-Gaunako Udalaren "Euskararen erabilera plana" hizkuntzaren normalizazioan aurrera egiteko plan estrategikoa da. Oinarrizko tresna da, udalerriko lehentasunak eta beharrak kontuan hartuta garatu beharreko helburuak eta estrategiak zehazteko. Laburbilduz, euskararen erabilera normalizatzeko euskararen aldeko ekintzak egokitu eta proposatzea du xede.

Planean jasotako helburuak kontuan hartuta, hizkuntza irizpide hauek bete behar dira:

1. Jardueren zabalkundea (kartelak, liburuxkak, gutunak...) euskaraz eta gaztelaniaz egin behar da.
2. Euskara eta gaztelania erabili behar da egiten diren ekimen eta jardueretan: aurkezpenak, megafonia, ekitaldiak...
3. Haur eta gazteentzako jardueretan, kontuan hartuta Iruraiz-Gaunako haur eta gazteen artean D dela hezkuntza eredu nagusia, lehentasuna emango zaio jarduera euskaraz egiteari, euskaraz ez dakiten haur eta gazteak baztertu gabe, eta, beharrezkoa den kasuetan, haien komunikazio premiei konponbidea emanez, gaztelaniaz jardunez.
4. Dirulaguntza eskatzean, udalari jakinarazi behar zaio zer jarduera antolatu nahi den eta zer hizkuntzatan izango den. Dirulaguntza justifikatzean, antolatutako jarduerak zein diren eta zein hizkuntzatan egin diren adierazi behar da.
5. Dirulaguntza jasotzen duen organoak konpromisoa hartuko du udalak hizkuntza normalizatorako abian jartzen dituen ekimenetan aktiboki parte hartzeko.
6. Euskara sustatzeko ardura duen dinamizatzaileak egingo du helburu horien jarraipena.

12. oinarria. Berdintasun irizpideak

Arabako Lautadako emakumeen eta gizonen berdintasunerako planaren helburu nagusia da emakumeen ahalduz indibiduala eta kolektiboa sustatzea, baliabideak eta zaintzak pertsonen artean modu ekitatiboan banatzea, eta indarkeria matxistatik gabeko bizitzak lortzea. Plan hori oinarritzko tresna da, udalerraren ezaugarri bereziak kontuan hartuta.

Planean adierazitako helburuak lortzen direla egiaztatzeko, genero ikuspegia kontuan hartu behar da aurkezten diren programa eta jarduerak egitearen ondorioz sortzen diren agiri guztietan. Horiek horrela, emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko, irizpide hauek bete behar dira:

- Hartzaileen edo parte hartzaileen datuak sexuka (emakume/gizon) berezita aurkeztu behar dira edo, erakundeek beraiek bildu badituzte datuak, genero nortasunaren arabera (emakume, gizon, beste batzuk), bai aurkeztutako proiektuan, bai haren justifikazioan.
- Saihestu egin behar da emakumeentzako zernahi eragin kaltegarri, eta, hala behar izango balitz, aurreikusi egin behar dira eragin hori ezerezteko neurriak.
- Proiektuan edo haren harira gauzatzen diren jarduera guztietan emakumeen eta gizonen parte hartze orekatua sustatu behar da.
- Elkarrean jardueretan indarkeria matxista eta mikromatxismoak prebenitu behar dira.
- Dirulaguntza jasotzen duen organoak dirulaguntzan inplikaturako langileen berdintasunari buruzko prestakuntza sustatu behar du, udalak edo kuadrillak urtean zehar antolatzen dituen edo beste erakunde batzuek ofizialki eskaintzen dituzten ikastaroen edota tailerren bitartez.
- Paritarioak ez diren zuzendaritza batzordeak aldatu behar dira.

13. oinarria. Gastuak justifikatzea, dirulaguntza ordaintzea eta dirua itzultzeko prozedura

Jarduera amaitu ondoren, dirulaguntza jasotzen duen programa edo jarduera justifikatu behar da. Horretarako epe 2025eko urtarrilaren 8an amaituko da. Epe hori igaro eta agiri horiek aurkeztu ez badira, ordainketa kredituak baliogabetu egingo dira.

Jarduera justifikatzeko, agiri hauek aurkeztu behar dira:

- a) Justifikazio orria, eredu ofizialaren arabera, programa edo jarduera bakoitzeko, elkarrearen lehendakariak edo eskaeraren edo jardueraren arduradunak sinatuta. Eskaera orrien eredu udal bulegoetan eskatu ahal izango da.
- b) Memoria bat, honako hauek adierazita: egindako jarduerak, lortutako helburuak edo lortutako emaitzak, erabilitako baliabideak, jarduerak noiz egin diren eta erabilitako hizkuntzak. Memoriak jardueraren genero inpaktua ere aipatu behar du, datuak sexuaren arabera banakaturik, halakorik jaso bada.
- c) Egindako gastuari dagozkion fakturak. Fakturak betekizun hauek bete behar dituzte:
 - Fakturen datak diruz lagundutako aldikoak izan behar dira.
 - Faktura egilearen eta hartzailearen izena edo sozietatearen izena eta NANA edo IFZ agertu behar da.
 - Fakturaren kontzeptua agertu behar da.
 - Prezioa (BEZa barne dagoen ala ez zehaztuta) eta PFEZaren atxikipena agertu behar dira, hala badagokio.
- d) Emandako fakturak ordaindu izanaren frogagiriak.

e) Elkartearen lehendakariaren edo pertsona fisikoaren ziurtagiria, bestelako dirulaguntzarik ez dutela jaso adierazten duena. Beste dirulaguntzaren bat jasoz gero, dirulaguntza mota eta zenbatekoa zehaztu behar dira. (Justifikazio orrian jasotako eredu ofiziala erabili behar da).

f) Egoitza udalerrian ez duten elkarte edo klubaren kasuan, Iruraiz-Gaunako udalerrian errol-datutako bazkideen justifikazioa aurkeztu behar da. Halaber, partaideen datuak jakinarazi behar dira, Iruraiz-Gaunakoak direla egiaztatzeko.

g) Antolatutako jarduerari buruzko informazioa jasotzen duen kartela edo dokumentua.

h) Egokitzat jotzen den dokumentazio oro.

Laguntzak edo dirulaguntzak ordainduko dira frogagiriak aurkeztu eta dirulaguntza emateko guztizko zenbatekoa baloratu ondoren.

Frogagiriak ez badatoz bat deialdi honetako irizpideekin, irizpideen arabera justifikatutako kopurua besterik ez da ordainduko; gainera, gerta liteke dirulaguntza baliogabetzea ere.

Oinarri hauetan jasotako betebeharrak eta zehaztapenak betetzen ez badira, dirulaguntza baliogabetu ahal izango da.

Iruraiz-Gaunako Udalak datuak benetakoak diren eska eta azter dezake, bai eta oinarri hauetan arautzen dena betetzen den ere. Horretarako, onuradunek hitzemango dute egingo dituzten programa eta jardueren inguruan eskatzen zaizkien datuak eta agiriak emango dituztela, bai eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eskatzen dituenak ere.

14. oinarria. Dirulaguntza galtzea

Oinarri hauetan jasotako betebeharrak eta zehaztapenak betetzen ez badira, emandako dirulaguntzaren zati bat edo guztia galdu ahal izango da.

15. oinarria. Interpretazioa

Oinarri hauek interpretatzean zalantzaren bat sortzen bada, Iruraiz-Gaunako Udalak ebatziko du.

Hauek dira aplikatu beharreko oinarritzko arauak: dirulaguntzen udal ordenantza, Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, zeinak onesten baitu Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren arautegia.

16. oinarria. Errekurtsoak

Deialdi honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da zuzenean Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, bi hilabeteko epean, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, edo, nahi izanez gero, berraztertzeko errekurtsua, deialdi hau onetsi duen organoari berari, hilabeteko epean, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Azken horren esanbidezko nahiz ustezko ebazpenaren aurka, berriz, administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da, Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, bi hilabeteko epean, errekurtsua ezesten duen ebazpena jakinarazten den egunaren hurrengotik aurrera, edo, ebazpena ustezkoa bada, sei hilabeteko epean, ustezko ebazpen hori gertatzen den egunaren hurrengotik aurrera.

17. oinarria. Azken klausula

Oinarri hauetan aurreikusi ez den orotan, honako hauek aplikatuko dira: Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Legea eta hura garatzen duen erregelamendua, 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onetsia; Iruraiz-Gaunako Udalaren dirulaguntzak, eta laguntzak arautzen dituen ordenantza eta gainerako araudi aplikagarria.

Guztiek jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan argitaratzen da.

Azilu, 2024ko otsailaren 6a

Alkatea

IRATXE DEL BARCO MURUA

**II - ADMINISTRACIÓN LOCAL
DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE ÁLAVA****AYUNTAMIENTO DE IRURAIZ-GAUNA****Convocatoria bases para financiar iniciativas de carácter cultural y deportivo desarrolladas por asociaciones, clubs deportivos y/o personas físicas en el año 2024**

El Pleno del ayuntamiento en sesión celebrada el día 6 de febrero de 2024, aprobó las Bases reguladoras de las ayudas para financiar iniciativas de carácter cultural y deportivo desarrolladas por asociaciones, clubs deportivos y/o personas físicas en el año 2024.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 9.3 de la Ley 38/2003 de 27 de noviembre, General de Subvenciones, la ordenanza municipal reguladora de subvenciones y el artículo 45.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre de Procedimiento Administrativo Común, se publican las mismas para general conocimiento.

Base 1. Objeto de la convocatoria

Las subvenciones reguladas en estas Bases, en régimen de concurrencia competitiva, tienen por objeto contribuir al desarrollo de programas y actividades de carácter cultural y deportivo del municipio de cara a que complementen la intervención municipal, durante el año 2024.

Las ayudas para cofinanciar las actividades se concederán en concepto de subvenciones y estarán sujetas a la Ley General de Subvenciones 38/2003, de 17 de noviembre y su reglamento (Real Decreto 887/2006 de 21 de julio), al Reglamento de Servicios de las Corporaciones Locales, y en su caso, al plan estratégico y a la ordenanza municipal de subvenciones.

Base 2. Personas beneficiarias

Podrán ser beneficiarias/os de estas ayudas:

1. Asociaciones y clubs deportivos, sin ánimo de lucro, debidamente registrados en Base a la Ley 7/2007, de 22 de junio, de Asociaciones de Euskadi, que se encuentren entre los siguientes:

a) Asociaciones y clubs deportivos, sin ánimo de lucro, radicadas en el municipio de Iruraz-Gauna. Se deberá acreditar la inscripción en Base a la Ley 7/2007, de 22 de junio, de Asociaciones de Euskadi.

b) Asociaciones y clubs deportivos, sin ánimo de lucro que, aun no estando radicados en el municipio de Iruraz-Gauna, realicen actividades en el mismo, siempre que alguna de las personas socias pertenezca al municipio. Se deberá acreditar la inscripción en Base a la Ley 7/2007, de 22 de junio, de Asociaciones de Euskadi y comunicar las personas del municipio que son socias.

2. Personas físicas empadronadas en el municipio de Iruraz-Gauna que puedan llevar a cabo proyectos o actividades que sean objeto de subvención, complementen la actividad municipal y sean considerados de interés público y social para el municipio.

Base 3. Programas subvencionables

Serán subvencionables las actividades programadas que se realicen, sin ánimo de lucro, durante el año de su petición en el ámbito territorial del municipio de Iruraz-Gauna o aquéllas que no desarrollándose directamente en el mismo forman parte de un programa desarrollado por personas beneficiarias contemplados en la Base 2 y referidas a las áreas de:

1. Promoción cultural.

— Actividades culturales de participación popular cuyos objetivos estén encaminados a crear, difundir o fomentar la cultura entre la población.

— Actividades de formación y creación artística: talleres de ocio y tiempo libre.

– Actividades de difusión cultural: conferencias, monográficos, exposiciones,...

– Visitas culturales.

2. Promoción deportiva.

– Ayudas para actividades deportivas: competiciones, marchas deportivas, campeonatos, así como cualquier otra actividad relacionada con el deporte recreativo.

3. Materiales.

– Compra de productos distribuidos como premios.

– Materiales utilizados para el desarrollo de actividades (pinturas, papelería, pinceles, etc...).

No serán subvencionables:

– Las actividades que impliquen una discriminación directa o indirecta por razón de sexo.

– Los gastos ocasionados por comidas, productos alimenticios, bebidas.

– Las actividades específicas que se subvencionen por la vía de ayudas a fiestas patronales, convenios, etc.

– La adquisición de bienes muebles e inmuebles y material de oficina fungible, salvo aquel material que estrictamente sea necesario para el desarrollo de la actividad objeto de subvención, previa valoración de la necesidad de este.

– Los gastos derivados del funcionamiento (alquiler de inmuebles, nóminas personales, combustible...).

– Los gastos que no se consideren fundamentales para el desarrollo de la propia actividad.

– Los proyectos paralelos a los ofertados desde el Ayuntamiento a menos que suponga un complemento de la intervención municipal.

Base 4. Dotación presupuestaria

La partida presupuestaria a la que se imputa las subvenciones es la destinada a actividades culturales y deportivas 330.48110 por importe de 2.000,00 euros.

Las subvenciones tendrán carácter voluntario y se aplicarán única y exclusivamente al año en curso. No será invocable como precedente y no será exigible un aumento o revisión de la subvención.

Base 5. Criterios para concesión de subvenciones y cuantías de las subvenciones

Los criterios generales de valoración para el señalamiento de subvención y fijación de su cuantía serán los siguientes:

a) Favorecer prioritariamente aquellas actividades que se desarrollen en el propio municipio.

b) Contribución de la iniciativa a la difusión, recuperación de la cultura y la normalización del euskera.

c) Aquellas que de forma transversal incluyan aspectos relacionados con la igualdad y la convivencia intercultural.

d) Favorecer aquellas actividades que sin subvención serían de difícil ejecución.

e) Interés general de la actividad.

f) Ámbito territorial de aplicación: número de pueblos del municipio implicados o que se favorecen de la actividad.

g) Número de personas beneficiarias y colectivos implicados del municipio de Iruraiz-Gauna.

h) Relación entre el coste del programa y la parte que asume del mismo la entidad peticionaria.

i) Favorecer la igualdad entre mujeres y hombres.

j) Programas que desarrollan e impulsan la perspectiva de género de modo positivo.

1. Los criterios específicos que serán aplicados para la determinación de las ayudas a las asociaciones y clubs deportivos, sin ánimo de lucro, serán los que a continuación se indican:

a. Las actividades que se desarrollen, en el propio municipio, por asociaciones o clubs deportivos con sede y ámbito estrictamente municipal serán subvencionadas, como máximo y dependiendo de las solicitudes que se presenten, en el 85 por ciento del coste subvencionable (descontando los posibles ingresos), con un límite de 500,00 euros con independencia del volumen de programas o actividades que presenten y siempre en el marco de la partida presupuestaria existente en el presupuesto general del municipio.

b. Las actividades que se desarrollen fuera del municipio por asociaciones radicadas en el municipio, tales como, excursiones, salidas, etc., se subvencionarán como máximo en una cuantía de 200 euros. Para su abono deberá justificarse y acreditarse un gasto, como mínimo, de 250 euros.

c. Las actividades que se desarrollen, en el municipio, por asociaciones o clubs deportivos, no radicados en el municipio serán subvencionadas, como máximo y dependiendo de las solicitudes que se presenten, en el 85 por ciento del coste subvencionable (descontando los posibles ingresos), con un límite de 400,00 euros con independencia del volumen de programas o actividades que presenten y siempre en el marco de la partida presupuestaria existente en el presupuesto general del municipio.

d. Compra de productos distribuidos como premios, hasta un 50 por ciento del coste con un límite de 100, 00 euros.

e. Materiales utilizados para el desarrollo de actividades (pinturas, papelería, pinceles, etc.), hasta un 50 por ciento del coste con un límite de 100, 00 euros.

2. Los criterios específicos que serán aplicados a personas físicas empadronadas en el municipio de Iruraz-Gauna, que carezcan de personalidad jurídica, son los siguientes:

– Se aplicarán los mismos criterios señalados en el apartado 1, a), b), d) y e).

– Se otorgará una sola ayuda en el supuesto de que varios grupos de personas físicas por separado formalicen más de una solicitud de subvención para una misma actividad o programa de actividades.

Se considerarán gastos sólo aquellos que sean justificados mediante factura.

En todos los casos, si en razón del número de solicitudes y los importes a percibir, fuera necesario minorar los tantos por cientos máximos a percibir para ajustarlos a la partida presupuestaria la reducción se establecería proporcionalmente a todas las actividades.

Base 6. Solicitudes y documentación a aportar

Las/los solicitantes deberán presentar la siguiente documentación:

a) Instancia-solicitud individualizada, para programa o actividad, según modelo oficial, firmada por la/el presidente de la asociación o por la persona responsable de la solicitud o actividad.

b) Certificado expedido por la secretaria o el secretario de la asociación o por la persona responsable de la solicitud o actividad, acreditativo de la relación de ayudas solicitadas. Si se solicitan para éste mismo programa subvención o ayudas a otros organismos o entidades, deberán presentar la relación de estas (anexo I).

c) Certificado de hallarse al corriente de las obligaciones tributarias y con la Seguridad Social (anexo I).

d) Cuando se trate de asociaciones o clubes no radicados en el municipio, se aportará justificación de las personas asociadas empadronadas en el municipio de Iruaiz-Gauna.

e) Proyecto de las actividades o programa, según anexo instancia solicitud, incluyendo:

- Los objetivos que se persiguen.
- Descripción de las actividades a realizar.
- El lugar y fecha de desarrollo.
- Las personas destinatarias y el número de personas beneficiarias de la actividad.
- Presupuesto detallado de los ingresos y de los gastos de las actividades para cuyo desarrollo se solicita la subvención.
- Idioma en el que se realizará la actividad.

f) Fotocopia de los estatutos y documentación que acredite estar legalmente constituida e inscrita en el correspondiente registro de asociaciones y entidades, para las asociaciones que soliciten por primera vez o hayan modificado los estatutos.

Si la solicitud no reuniera todos los requisitos, se requerirá a la persona interesada, para que la subsane en el plazo de 10 días hábiles de acuerdo con el artículo 68.1 de la Ley 39/2015 de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Base 7. Presentación de la documentación

La documentación se presentará en el Registro General de entrada de documentos del Ayuntamiento de Iruaiz-Gauna o por cualquiera de los medios señalados en el artículo 16 de la Ley 39/2015 de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

El plazo de presentación de solicitudes, junto con la documentación a que hace referencia la base sexta, finalizará el 26 de abril de 2024.

Las solicitudes presentadas fuera de plazo no serán tenidas en cuenta.

Base 8. Compatibilidad de las subvenciones

Las ayudas municipales son compatibles con otras ayudas a las que pudiesen acceder las personas solicitantes, no obstante, el importe de la subvención municipal no podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones o ayudas de otras entidades, supere el costo de la actividad a desarrollar por el colectivo beneficiario.

La subvención aprobada podrá ser revisada, una vez conocida la financiación del gasto y las aportaciones complementarias de ayudas u otros ingresos, de tal forma que la cuantía definitiva sea el resultado deficitario de la liquidación final de gastos-ingresos.

Base 9. Estudio y resolución de solicitudes

El estudio y, en su caso, concesión o denegación de ayudas económicas, se realizará una vez finalizado el plazo de presentación de solicitudes.

El ayuntamiento, en aquellos casos que lo estime oportuno, podrá solicitar datos o pedir aclaraciones sobre las documentaciones presentadas que, caso de no cumplimentarse en los plazos que establece la Ley de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas podrían retrasar el expediente o incluso dar lugar al archivo del mismo.

Una vez cumplimentados todos los trámites relacionados con cada solicitud se someterán a informe del personal técnico, quien lo remitirá a la alcaldesa-presidenta para su resolución. La alcaldesa-presidenta resolverá mediante el correspondiente acuerdo la concesión o denegación de la correspondiente subvención informando a las y los solicitantes mediante notificación escrita.

La resolución de las solicitudes se efectuará en el plazo máximo de tres meses. Transcurrido el plazo sin que se haya dictado resolución expresa, se entenderá desestimada dicha solicitud. La resolución pone fin a la vía administrativa y en ella se indicarán los recursos que caben contra la misma, y será notificada conforme a lo establecido en los artículos 42,43 de la ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Base 10. Obligaciones

- a) Las actividades subvencionadas habrán de estar realizadas antes del 31 de diciembre del año de su concesión.
- b) Las personas beneficiarias, además de justificar los gastos, deberán presentar la memoria detallada de la actividad y el balance económico de la totalidad de los gastos e ingresos.
- c) No se podrán realizar cambios de destino de las subvenciones concedidas salvo previa autorización del ayuntamiento.
- d) Se deberá comunicar al ayuntamiento, las ayudas que se concedan y abonen para la misma finalidad, a los efectos de que se proceda al reintegro de la ayuda que proceda.
- e) En la publicidad que conlleve la actividad deberá constar la expresión "Iruraiz-Gaunako Udalaren laguntzarekin / Con la colaboración del Ayuntamiento de Iruraiz-Gauna".
- f) Se deberá tener en cuenta, en toda la documentación, publicidad, imágenes o material, una comunicación no sexista, evitando cualquier tipo de imagen o estereotipo sexista que discrimine a las mujeres e impulsando valores igualitarios.
- g) Las personas beneficiarias realizarán la publicidad y comunicación en las dos lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma Vasca.
- h) Facilitar cuanta información le sea requerida por órganos del Ayuntamiento de Iruraiz-Gauna, Tribunal Vasco de Cuentas Públicas u otros organismos competentes.
- i) Las establecidas en la Ley 38/2003, de 17 de noviembre General de Subvenciones y en la ordenanza municipal de subvenciones.

La mera presentación de solicitud de subvención implica el conocimiento y aceptación de estas Bases.

Base 11. Criterios lingüísticos

El "plan de uso del euskera" del Ayuntamiento de Iruraiz-Gauna es un plan estratégico que tiene el objetivo de avanzar en la normalización lingüística. Es un instrumento básico a la hora de marcar los objetivos y estrategias a desarrollar, teniendo en cuenta las prioridades y necesidades del municipio. En definitiva, consiste en adecuar y proponer las acciones a favor del euskera para lograr la normalización de su uso.

Teniendo en cuenta los objetivos marcados en el plan, se deberán cumplir los siguientes criterios lingüísticos:

1. Realizar la difusión de las actividades en bilingüe; cartelería, folletos, cartas...
2. Utilizar el euskera junto con el castellano, en las iniciativas y actividades que se desarrollen: presentaciones, megafonía, actos...
3. En las actividades dirigidas a niños/as y jóvenes, teniendo en cuenta que entre los niños/as y jóvenes de Iruraiz-Gauna el modelo educativo principal es el D, se priorizará la realización de la actividad en euskera, sin excluir a los niños/as y jóvenes que no conozcan el euskera, y dando solución a sus necesidades comunicativas en los casos en que sea necesario, mediante la comunicación en castellano.

4. Al solicitar la subvención, se deberá comunicar al ayuntamiento las actividades a organizar y el idioma en el que se impartirán. Al justificar la subvención, las actividades organizadas, así como el idioma en el que se han realizado.

5. El órgano que recibe la subvención se comprometerá a participar activamente en las iniciativas que ponga en marcha el ayuntamiento con la normalización lingüística como objetivo.

6. El seguimiento de estos objetivos correrá a cargo del dinamizador para la promoción del euskera.

Base 12. Criterios de igualdad

El plan para la igualdad de mujeres y hombres de la Llanada Alavesa tiene como objetivo principal promover el empoderamiento individual y colectivo de las mujeres, repartir equitativamente los recursos y los cuidados entre las personas, y la consecución de vidas libres de violencias machistas. Este plan es un instrumento básico teniendo en cuenta las características específicas del municipio.

Para asegurar que se cumplen los objetivos marcados en el plan, la perspectiva de género deberá estar presente en todos los documentos que se deriven de la ejecución de los diferentes programas y actividades que se presenten. Para ello se deberán cumplir los siguientes criterios para promover la igualdad entre mujeres y hombres:

- Presentar los datos de población participante o público destinatario desagregados por sexo (mujeres y hombres) o, en caso de que las entidades hayan recogido los datos, según identidad de género (mujeres, hombres y otras identidades), tanto en el proyecto presentado como en su justificación.

- Evitar cualquier resultado negativo sobre el colectivo de mujeres y, en su caso, prever las medidas correctoras para neutralizar ese impacto.

- Fomentar la participación equilibrada de mujeres y hombres en el proyecto y en todas las actividades que desarrolle.

- Prevenir la violencia machista y los micromachismos en el seno de las actividades de las asociaciones.

- El órgano que recibe la subvención debe promover la formación en igualdad al personal implicado en la subvención, a través de los cursos y/o talleres que a lo largo del año se organicen desde el ayuntamiento, la cuadrilla o que se oferten por otras instituciones de manera oficial.

- Modificar las juntas directivas que no sean paritarias.

Base 13. Justificación de gastos, abono de la subvención, y procedimiento de reintegro

El programa o actividad subvencionada se deberá justificar una vez finalizada la actividad, no pudiendo, en todo caso, superar la fecha del 8 de enero del 2025. Pasado este plazo sin presentar dicha documentación, se procederá a la anulación de los créditos de pago.

Para la justificación se deberá presentar la siguiente documentación:

a) Instancia-justificación, individualizada para cada programa o actividad, según modelo oficial, firmada por el presidente o presidenta de la asociación o la persona responsable de la solicitud o actividad. El modelo de las instancias se podrá solicitar en las oficinas municipales.

b) Una memoria con indicación de las actividades realizadas, objetivos alcanzados o resultados obtenidos, recursos utilizados, fechas de realización e idiomas utilizados. La memoria hará referencia, también, al impacto de género de la actividad, con desglose de los datos por sexo, si se han recogido.

c) Facturas correspondientes al gasto realizado. Las facturas deberán reunir los siguientes requisitos:

- Estar fechadas durante el período para el que se conceda la subvención.
- Identificación del/a emisor/a y receptor con su nombre o razón social y DNI o NIF.
- Concepto de la factura.
- Precio con IVA (incluido o excluido) y retención de IRPF si corresponde.

d) Justificantes del pago de las facturas aportadas.

e) Certificado del presidente o presidenta de la asociación o persona física, que informe de la no concesión de otro tipo de subvención. Si existe otorgamiento de otro tipo de subvenciones se deberá indicar el tipo de subvención y la cuantía otorgada. (Según modelo oficial recogido en la instancia-justificación).

f) Cuando se trate de asociaciones o clubes no radicados en el municipio, se aportará justificación de las personas asociadas empadronadas en el municipio de Iruraiz-Gauna. Asimismo, se facilitarán datos de las personas participantes para acreditar su pertenencia al municipio de Iruraiz-Gauna.

g) Cartel o documento en el que aparezca la información sobre la actividad organizada.

h) Toda aquella documentación que se estime oportuna.

El pago de las ayudas o subvenciones se realizará una vez presentada la documentación justificativa y valorado el importe total de concesión de subvención.

Si las justificaciones no corresponden con los criterios de esta convocatoria se procederá únicamente al abono de las ayudas en Base a la cantidad justificada o incluso podría derivar en la anulación de la subvención.

El incumplimiento de las obligaciones y determinaciones contenidas en estas Bases podrá dar lugar a la revocación de la subvención.

El Ayuntamiento de Iruraiz-Gauna podrá exigir y comprobar la veracidad de los datos y el cumplimiento de lo regulado en las presentes Bases. Para ello, las/os beneficiarias/os quedan comprometidas a facilitar cuantos datos y documentación relacionada con los programas o actividades desarrolladas por ellas les sean solicitados, incluso los que pudieran ser requeridos por el Tribunal Vasco de Cuentas Públicas.

Base 14. Pérdida de la subvención

El incumplimiento de las obligaciones y determinaciones contenidas en estas Bases podrá dar lugar a la pérdida total o parcial de la subvención concedida.

Base 15. Interpretación

Cualquier duda que pudiera surgir en torno a la interpretación de estas Bases será resuelta por el Ayuntamiento de Iruraiz-Gauna.

Será norma básica de aplicación la ordenanza municipal de subvenciones, la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y el Real Decreto 887/2006, de 21 de julio por el que se aprueba el Reglamento de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

Base 16. Recursos

Contra la presente convocatoria podrá interponerse directamente recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de Vitoria-Gasteiz, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de su publicación en el BOTA, o bien con carácter potestativo, recurso de reposición ante el mismo órgano que ha aprobado la presente convoca-

toria, en el plazo de un mes, a contar desde el día siguiente al de su publicación en el BOTHA, y contra la resolución expresa o presunta de éste, recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de Vitoria-Gasteiz en el plazo de dos meses, a contar desde el día siguiente al de la notificación de la resolución desestimatoria del recurso o en el plazo de seis meses a contar desde el siguiente a aquel en que se produzca la desestimación presunta del recurso.

Base 17. Cláusula final

En todo lo no previsto en las presentes Bases, se aplicará la Ley 38/2003, General de subvenciones, y su Reglamento de desarrollo, aprobado por Real Decreto 887/2006, la ordenanza reguladora de subvenciones y ayudas del Ayuntamiento de Iruraiz-Gauna y demás normativa que sea de aplicación.

Lo que se publica para general conocimiento y efectos oportunos.

En Azilu, a 6 de febrero de 2024

La Alcaldesa

IRATXE DEL BARCO MURUA